

KOMUNIKABIDEEN HIZKUNTZA ETA ESKOLA Betaurrekoak direla eta

Xabier Mendiguren

Komunikabideez eta eskolaz hitz egiteko, bi alor horietako batetik etorri beharko luke hizlariak. Hau da, kazetaria edo kazetaritzan aditua izan, bere munduaren eta eskolaren arteko harremanez jarduteko, edo bestela irakasle edo pedagogoa, eskolaren ikuspegitik komunikabideen gaia aztertzeke. Nire kasuan, ez naiz ez bata ez bestea eta beharbada ez nukeen horrelako ur handitan sartu behar, aitzakia gisa ezer argitzekotan, hauxe esan nezake, ez naizela neure kabuz sartu baizik eta Eusko Ikaskuntzaren eskariz; eta erakunde honek euskal kulturaren eta Euskal Herriko komunitate zientifikoaren alde egindako eta egiten dituen lanak kontuan izanik, ezin nezakeen ezetzik esan.

Ni neu filologoa naiz ikasketaz; lanbidez ere, argitaletxe batean helduen literaturaz eta testuen orrazketaz arduratzen naiz; horrez gain, denbora librean, irakurtzeaz gain aldian-aldian liburuak idatzi izan ditut; nire uste eta sinesmenen alorrera pasatuz, inola definitzekotan euskaltzaletzat dut neure burua eta zaletasun hori ekintzetan gauzatzeko, besteak beste, Euskaldunon Egunkariaren laguntzaile izan naiz, haren Estilo Liburuaren idazketan parte hartuz. Beraz, beste aitorpenik gabe ere sise konturatuko zinetenez, hizkuntzaren munduan murgildutako gizona naiz; honek ez du esan nahi, inondik ere, hizkuntza beste kezkarik ez dudarik, baina hizkuntzaren esparruan dudan interesagatik eta jakintza apurratik deitu didatenez zuen aurrean hitz egitera, ikuspegi horretatik abiatuta helduko diot gaurko gaiari.

Komunikabideetako hizkuntzak nolakoa izan behar duen aztertzean, konparazio zahar bat datorkit gogora. Hara hizkuntza idatziak zer eta nolakoa behar zuen galdetzean, hauxe erantzun zuen norbaitek betaurrekoetako kristala bezalakoa izan behar zuela. Alegia, kristala garbi baldin badago, eta ikuslearen ikusmenari ongi doitu, norbera ez da konturatu ere egiten betaurrekoak daramatzanik, zikinak baldin badaude, aldiz, edo pitzatuak edo gaizki graduatuak, gure aurreko mundu zabalari begiratu eta hartaz jabetu ordez kristalaren akatsez arduratuko gara. Era berean komunikabideetako hizkuntzak garde-

na izan beharko luke, errealitatearen eta jasotzaileen arteko zubi naturala, gertakariez axola gaitezen eta ez mezulariaz.

Tamalez, badakit hitzaldia hasi orduko ondorioak aurreraten ari naizela baina, hau ez da horrela izaten; ez da analisi zorrotzegirik behar, begiak zabalik izan eta ingurumariari arretaz begiratzea nahikoa da, hauxe konstatatzeko, hots, informazioa jasotzen dugunon eta gertakanen artean, komuni-kabideetako kristalak mila distortsio dituela, era askotakoak eta faktore askon zor zaizkionak: kolore ideologikoak, ezjakintasunari baino gehiago nabarmendu nahiari dagozkion zikinak eta bestelakoak. Eskola ez da noski optika-denda bat eta ez da bere egitekoa kristal-garbiketaren aritza, baina irakasle kontzertziadunen egitekoa da ikasleak prestatzea, hizkuntza egoki erabiltzeko ezezik, baita, ahal den neurrian behintzat, komunikabideetako erabilera desegoki eta manipulatuaz ere ohartzeko ere; beste hitz batzuekin esanda, kritiko izateko, esaten diguten guztia geure irizpideen gaibahetik pasatzea baita pentsaeraren uniformizazioa nagusitzen den mundu honetan askatasun pixka bat gordetzeko modu bakarra.

Hau horrela esanda, irudi lezake garai bateko diskurtso ezkeriar zaharkituarekin ari natzaizuela, baina ez da horrela: Eusko Jauriaritzako Hezkuntza Sailak berak ere halaxe dio, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako Oinarriko Curriculum Diseinuan, puntu honetaz ari denean: "Multzo honen helburua komunikabideen mezuekiko jarrera kritikoak garatzea da, eta horretarako beharrezko da beren funtzionamendua ezagutzeta, eta beraz baita testu hauen ekoizpen baldintzak ere: igozlea, honek hartzaileri buruz erakitzen duen irudia, mezuen helburua eta espazio nahiz denborazko baldintzak karakterizatzea". Aholku hori hitzez hitz betetz gero, mass medietako jabeen interes ideologiko-enpresarialak, manipulazio eta desinformazio teknikak eta hauek ikusle-entzule-irakurleengan duten eragina aztertu beharko genituzke. Hitzaldi hori nirea baino askoz interesgarriago eta probetxugarriagoa litzateke seguru asko, baina esan dizuet lehen ere hizkuntzaz aritzeko nagoela ni hemen eta honetaz arituko naiz batik bat.

Zerk definitzen du komunikabideetako hizkuntza? Ezin da erantzun zehatzik eman: gaur egun komunikabideak —hots: egunkariak, irratia, telebista eta neurri batean zinema— kutxa handi bat dira, non genero asko sartzen den eta horien arabera beste horrenbeste estilo; ez da berdin marrazki biziunetako hizkuntza eta albisteetako, dokumental edo erreportaietako eta eztabaida-saioretako, eta horiek guztiek ere zerikusi gutxi dute publizitate eta iragarkien munduko hizkuntzarekin. Denak nahas-mahas elkartu eta ezaugarri komun batzuk eman nahiko bagenizkie argitasun gutxiko sikulu-saltsa bat egingo genuke; hortaz, zehaztea komeni denez, nik hemen batez ere, bestelakoak ere aipatuko ditugun arren, albiste eta informazioetako hizkuntza aztertuko dut, eta gaia horrela mugatzeko badira arazoak, hala nola:

a) Komunikabideen hasierako funtzioa, oraindik ere funtsezkoena, eta dudarik gabe berezkoena, berri ematea da.

b) Bestelako hizkuntz erregistroek etengabe xurgatzen dituzte albistegietako hizkuntz ereduaren gertatzen diren berrikuntza eta joerak.

c) Albiste zerbitzuetarako hizkuntz kode idatzia erabiltzen da, baita ikus-entzunezko albistegietan ere, horietan berri idatzi batean oinarritzen dira eta; hizkuntza idatzia erregistraturik gelditzen denez, errazagoa zaigu aztertzeko. Bestalde, hizkuntza bisualaren zeinu-kodeez aritzeko (*travelling* bat zer den, plano aldaketak eta abar) hemen dugun baino denbora gehiago eta bitarteko hobeak beharko genituzke.

Hortaz, komunikabideek informazioa ematean darabilten hizkuntza da gure ikergaia. Komunikabideek eurek horretaz zer dioten jakitea interesgarria litzateke eta gramatika, hiztegi eta fonetikaren zurrumbilietan sartu aurretik, bere egitekoa nola definitzen duten ikusi beharko genuke. Hitz horietan ez bada ere, betaurrekoen teoria defenditzen dutela esango nuke; izan ere, komunikabide guztien adierazpenetan behin eta berriz entzungo ditugu hiru ezaugarri hauek, bat: zerbitzu publikoa direla eta informazio egiazkoa dutela helburu; bi: objetibotasuna dutela berriak ematean eta aniztasuna iritzietan; eta hiru: zer den informazio eta zer iritzi argi bereizten dutela; honi dagokion estiloa berriz, laburra omen da, funtzionala, komunikatiboa, erraza, argia, arina, hortaz anbiguotasunetik, iluntasunetik eta erredundantziatik ihes egiten duena, Gehiegikeria litzateke hau dena gezur hutsa dela esatea, baina gutxien-gutxien berearena kendu beharko genioke, ñabardurak egin eta eragozpen batzuk jarri. Estiloarenak geroxeago aztertuko ditugunez, ekin diezaiogun lehenik definizio hirukoitz horri.

1. “Zerbitzu publikoa eta egiazko informazioa helburu duena”. Zerbitzu publikoarena kontzeptu nahasi eta nahasgarria da, inon baldin bada. Zuek, irakaskuntzako langileak gehienok, gogoan izango duzue, ikastolen publikotasuna zela eta ez zela zenbat hika-mika eta hizpide sortu zituen berba horrek. Komunikabideetan ere, bedeinkazioa lortzeko formula da zerbitzu publikoarena, baina zer du horrek atzean? Publikoari zuzendua egotea, jendearen beharra bizirik irauteko. Alde horretatik, edozein enpresa da zerbitzu publiko, zintzoena nahiz gaiztoena, elizetatik prostituetara, berdin kondoi-saltzaileak eta teilatu-konpontzaileak.

Jabetzaren aldetik batzuk pribatuak dira eta beste batzuk publikoak, instituzio batenak zehatzago esanda. Denek omen dute helburutzat informazio egiazkoa eskaintzea. Hala ote? Jabetza publikoko komunikabideetan, agintean dagoenak beti dio baietz, informazio zehatza eta zerbitzu publikoa dela; baina era berean, oposizioan dagoenak ere beti esan ohi du, hemen eta edonon, progaganda-tresna izaten dela, eta guz-

tiok dakigu hala dela neurri handi batean, ez da harritzekoa ere noski. Ba ote da modurik komunikabide publikoak gobernaren tresna izan ez daitezen? Oso zaila iruditzen zait, arduradunak politikokoak eta hauen konfiantzazko kazetariak izaten direnez. Formula original bat Italiako da, non hiru telebistakate publikoak hiru alderdi nagusien artean banaturik baitzeuden. Beharbada ez luke oso ondo funtzionatuko, baina imajinatzen al duzue horrelako zerbaite gure artean?

Jabetza pribatukoek ere, informazioa emateaz gain beste helburu guztiz zilegi bat ere izaten dute: irabaziak lortzea. Honek publizitatearen gehiegikeria ekartzen du tarteka baina alferrik da kexatzea: jendeak aukera izaten du hau edo beste hautatzeko, eta gainera iragarkiak izaten dira batzuetan atalik estetikoena. Gauza bat uste dut ordea arautu behar litzatekeela, eta arautu ezean gu ohartu behinik behin: publizitateak agerian izan dezala bere izaera, informazioz mozorrotu gabe, hori ere, tamalez, ebitaezina izaten den arren. Bestalde, ideia eta iritzi jakin batzuen progaganda ere ez dago komunikabide pribatuaren asmoetatik aparte, eta hau frogatzeko aski da ikustea nola komunikabide horietako askok urtero diru-galera handiak izaten dituzten eta hala ere aurrera jarraitu, jendearengan lortutako eraginak hori eta gehiago balio duelakoan. Ez ahaztu komunikabideen jabeak gaur egun talde handiak izan ohi direla, ekonomiaren sektore askotan dabilzanak, multinazionalak askotan, eta politikan ere interesak dituztenak ia beti.

Konstatazio hauek adierazpen askatasunaren funtsa kolokan jartzen digute. Izan ere, legez denok dugu nahi duguna esateko eskubidea, baina gero iritzi hori zabaltzeko orduan aukera berdinak ote ditugu nik eta gobernuko sailburu batek? Zuk eta telebista-jabe batek? Komunikazioaren muina hartu emanean datza, baina komunikabideak gero eta esku gutxiagotan kontzentratzen ari dira, oligopolio politiko-ekonomikoa dira dagoeneko, denok komunikatzeko baino gehiago iritzi nagusi batzuk hedarazteko balio dutenak. Horregatik proposatu zuen Jon Sarasuak komunikabide ez baina hedabide deitu behar geniekeela.

2. “Objetibotasuna berrietan eta aniztasuna iritzietan”. Ezer baino lehen argitu beharko genuke erabateko objetibotasunik ez dagoela inoiz, ez hemen ez inon, ez historian ez kazetaritzan. Gertaerak bere hutsean kontatu nahia ametsa da, gertaera zer den eta zer ez den epaitzeko ere gure subjektibotasuna erabiltzen baitugu, eta beste horrenbeste gertakari baten barruko alderdi bat edo beste azpimarratzean. Hala ere, guztizko objetibotasunik ez dagoela eta, hortik ezin atera liteke ondorioztat denak berdinak direnik eta beti gezurra kontatuko digutenik. Honetan, beste edozertan bezala, neurriak izaten dira, baina, paradoxa badirudi ere, neurri horiek zailak dira neurtzen. Zenbateraino ez diogu irizten objetibo juxtu gure pentsaerarekin bat datorren ikusmoldeari? Gustoak gusto eta iritziak iritzi, nik zinez uste dut gaur egun Euskal Herrian kaleratzen diren egunkarien artean, adibidez, euskarazko bakarra dela erdarazko guztiak baino askoz objetiboago. Bestalde, objetibotasuna non neurtu behar den, ohar bat egin nahiko nuke. Erraza da objetibo izaten guri ez dagozkigun auzietan: Finlandia eta Islandiako futbol-selektzioen arteko partidua objetiboki kontatuko luke gure arteko edozein irati-lokutorrek. Baina esatari hori txuri-urdiña bada, Athletic eta Errealaren arteko lehia batean erakutsi beharko luke benetan objetiboa ote den. Era berean, urrutiko ez baina bertako gatazka politikoetan frogatu behar da objetibotasuna. Gainera, nahiz eta guk pentsatu gauza garela edozein komunikabideren mezuetan gezurra eta egia bereizteko, luzera begira igorleak beti du guregan eragina, guk ez baitakigu zein informazio ezkututzen digun eta zein ematen. Horregatik da guztiz garrantzitsua arazo gatazkatsuen

kasuan bi ikuspegi behintzat jasotzea, eta eskolan ohizko ari-keta izan beharko luke ikasleak honetaz ohartaraztea: berri bera komunikabide batek eta bestek nola ematen duten. Eta ez ahaztu: bi ikuspegi esatean bi ikuspegi ezberdin esan nahi dut, ez ikuspegi beraren bi aldaera.

Iritzien aniztasunean beste horrenbeste gertatzen da. Ez da aski iritzi anitz ematea; iritzi horiek gai bati begiratzeko modu ezberdinak eskaini beharko lituzkete, irakurleari pentsarazteko eta honek bere ondorioak atera ditzan. Era berean, arazo gorietan erakutsi behar da aniztasuna, eta gurearekin bat ez datozen iritziei aukera eta trataera berdina emanez. Pentsa dezagun denok pixka batean, ea ba ote den komunikabideetan benetako aniztasunik.

3. "Informazioa eta iritzia argi bereiztea". Hau axioma bat zen garai batean edozein komunikabiderentzat, nahiz eta sarritan bete ez. Gaur egun ere berdina esan ote dezakegu? Batetik, lehen ere aipatu ditugun propaganda-nahiek bultzaturik, informazioz mozorrotutako iritziak ematen dira etengabe eta informazio-hautaketak ere berekin dakar ezinbestez iritzi bat edo bestea; baina bestetik, azken aldiak beste kazetaritza-mota bat ari da indartzen: iritziak emateko batera lotsarik ez duena, informazioa ideia batzuen mesedetan etengabe manipulatu ondoren disimulatzeko lanik hartzen ez duena, Nortasun handiko kazetarien kasua da hau, irratan aspaldi eta telebistan azken aldiak nagusitzen ari dena. Adibide ezagun batzuk aipatzearen, Carrascal delako bat dago Espainian eta Calleja gurean; biek ere txiste izena duten arren, joera hau ez da txantxetan hartzekoa; aitzitik, nik uste indartu egingo dela, neutraltasun itxurako berriek aspertu egiten baitute jendea, hotzegi egiten dute informazioa nonbait, eta berotasuna bilatzeko modus etsaitzat jotzen denaren kontrako beligerantzia da. Honen adibideak milaka dira, eta hizkuntza bertan suma daitezke ondorioak: esate baterako, informazioa irizitik bereizi nahi badugu, gertakari bat kalifikatzeko adjetiboak irizirako gorde beharko genituzke, ez berria emateko, eta gaur egun halakoz beterik ditugu albisteak.

Konturatuko zinetenez, hizkuntza aritu nahi badut ere oharkabean joaten zait jarduna gizarte-auzietara. Ez da harritzekoa ere, hizkuntza ez baitira soinu eta letra-multzo hutsak, zerbait adierazten dute, eta adierazten duten hori, komunikabideetan, gizarte-egituraren eta aginte-borrokaren giltzarri da gaur egun. Armeak adina informazio-iturriek erabakitzen dute gaur egun gerra baten nondik norakoa eta hauteskunde-sistemak dituzten herrialdeetan agintea botoz erabakitzen bada ere, botoak eskuratzeko tresnarik eraginkorrena komunikabideak dira. Gizartearen moldakuntzan eta hizkuntzaren aldaketetan ere beste edozein erakundek baino eragin handiagoa du, eskolak berak baino handiagoa. Izan ere, gero eta gauza gutxiago ikasten dugu geure begiz, baita inguru hurbilenean ere, gero eta gauza gutxiago frogatzen dugu geure kabuz eta horren orde ez esaten zaiguna sinetsi beste aukerarik ez dugu izaten eskuarki. Horregatik dira hain ohizko eta gogorrak komunikabide hauek kontrolatzeko borrokak. Hala ere, hitza ematen dizuet hemendik aurrera hizkuntz kontuetara mugatzen saiatuko naizela.

Has gaitezen ba estiloarekin. Ezaugarri zerrenda bat eman dugu lehen: argia, arina, erraza, laburra, funtzionala eta komunikatiboa. Funtsean denek gauza bera esan nahi dute, bakoitzak bere ñabardura erantsiz, eta ondo zehazten dute nolakoa behar lukeen komunikabideetako hizkerak. Hala ote da benetan? Betaurreko garbi eta gardena al da, izenondo horiek adierazten diguten eran? Ez dago erantzun garbirik, zuri-beltzak eta argi-ilunak nahasian baitatzo erreka honetan. Egia da horretarako joera badagoela, komunikabideetako

beharrek bere eraginda. Zerbait esan eta kontatu nahi bada, modu argian egin behar da, jendea ez nahasteko. Era berean labor adieraztea komeni da, zer kontatu asko izaten delako egunero eta denentzako behar adina tokirik ez; gainera, luze jardunez gero hartzailea aspertu egin liteke, botoia sakatu edo beste zereginen bati heldu. Arina eta erraza izateak ere arrazoi bera du: publiko zabal batentzat ari direnez, haien kultur maila eta interesak aintzat hartu behar dira.

Hori dena horrela da, baina ezin ahaztu txanponaren beste aldea ere. Funtzionaltasuna eta komunikagarritasuna luma darabilen eskuaren gidari zuzenak badira ere, asko dira eskua okertzen duten ajeak. Aipa ditzagun batzuk bederen.

1. Dotoreago ematen duelakoan, normala da oso komunikabideetako hizkeran inon esaten ez diren berrikeriak asmatu eta zabaltzea, moda txatxuak sortzea, kursikeria galantak sartzea. Adibideak ezin konta ahala dira, hauxe baita komunikabideetako hizkuntzaren izurrite nagusia, gurean ezinik beste hizkuntza guztietan ere eragin itzela duena. Okerrera, gainera, zera da: hedabideetako hizkuntzaren eredutzat hartzen dugunez, horko aldrebeskeriek jantzi egiten dutela pentsatu eta jendeak kopiatu egiten dituela maila jasoxeagotan edo jendaurrean aritu behar duenean. Zenbat aldiz ez ote dugu ikusi, egunero normal eta ondo hitz egiten duen norbait, halako batean hobeto egin nahi eta barregarri gelditzen. Erdaraz ari bada, de *que-ak* barra-barra edo a *nivel* de, eta euskaraz ere berdintsu: arabera edo araberez e do araberan, ez dakit zeren *mailan*, *-larik* ugari han-hemen...

Topikoen arazoa dugu hor. Komunikabideek berezko joera dute hizkuntz estereotipoak sortzeko, eta lana presaka egin behar dutenez horiek zabaldu egiten dira gero. Gero, topiko horiez inguraturik bizi garenez, normalak eta ohizkoak iruditzen zaizkigu eta inor gutxi konturatzen da aberrazioak esaten edo hizkuntzaren naturaltasuna usteltzen ari garela. Horrelako kasuak milaka dira baina bakar batzuk aipatuko ditut, adibide modura:

'Partidua amaitutzat eman zuten' esaten dute eta ez 'amaitu zuten'.
'Bilera burutu zuten' edo 'ospatu zuten' eta ez 'egin zuten'.
'Bi lagun suertatu dira hilik eta ez 'bi lagun hil dira'.
'Biztanlegoaren gehiengoa kontra dago' eta ez 'biztanle gehienak'.
'Baldintza txarretan bizi da' eta ez 'egoera txarrean' edo 'gaizki'.
'Pozik aurkitzen dira' eta ez 'pozik daude'.
'Jaialdia sei egunetz luze du' eta ez 'sei egun iraungo du'.
'Gaurkoan atzokoan baino berri hobeak eta ez 'gaur atzo baino'.
'Deia luzatu du alkateak eta ez 'deia egin du' edo 'deitu du'.
'Gaur emango zaio hasiera' eta ez 'gaur hasiko da'.
'20. minutuan sartzen zuen gola' eta ez 'sartu zuen'.
'Abantaila mantendu du' eta ez 'aldeari eutsi dio'.
'Suposatzen dugu' eta ez 'uste dugu'.
'Ez da akordiorako baldintzarik ematen' eta ez 'ez dago'.

Zerrenda hori nahi adina luza nezake, eta hor ez dago berez euskal gramatikaren kontrako bekatuak, la denok ontzat hartzen ditugun komunikabideetako topikoak dira, hedabideetako makurkeriak, eta euskarari bezainbeste erasotzen diote gaztelaniari. Alegia, erdarakada dira, bai, baina espainolez ere arazo bera dute, hango hedabideetan ere horrelako mila jasaten baitituzte. Erdararen eraso eta arazoa gerorako utzi nahi dut, eta hemen komunikabideetako moda txatxuak aipatu, besterik gabe, gure hizkuntza normala kutsatu egiten baitute, asko eta askotan erabilera zuzena horixe delakoan gainera. Denon lana izango da horrelakoei aurre egitea, batzuei behintzat alto ematea, beste hainbat ezingo baitira dagoeneko erazi. Gai honekiko kezka baldin baduzue, eta hala izatea espero dut nik behintzat, Egunkariaren *Estilo*

Liburua gomendatzen dizuet, eta gaztelaniari dagokionez, EFEren *Manual de español urgente*. Honelako eta bestelako mila bitxikeria eta ohar interesgarri aurkituko dituzue, beste inongo testuliburutan topatu ezinezkoak. Era berean, goi mailetan idazketa ikasten eta irakasten ari direnentzat oso mesegarriak izan litezke.

Beste era bateko topikoak ere badira, berez okerrak ez diren arren errepikatuaren errepikatuaz aspertu, nazkatu eta batez ere hizkuntza pobretu egiten dutenak. 'Normaltasuna nagusi' delako formula asmatu zuenak oso esaera jator eta polita asmatu zuen, baina komunikabideetan erabili den bakoitzeko txakur txiki bat eman baliote honezkero milioi askoren jabe zatekeen, gaur egun ez baita besterik entzuten, bai eguraldiaz, bai errepideen egoeraz, bai gertaera baten aurreko edo ondoko kaleko giroaz.

2. Aurreko puntuan aipatu dudan kursikeriarekin oso loturik dago komunikabideetako hizkuntzaren iluntasuna, bilatu beharko litzatekeen argitasunaren kontrako bekakua. Lanbide bakoitzak ditu bere ofizioko hitzak, bertakoentzat nola edo halako esanahia dutenak baina kanpokoentzat ulergaitzak. Komunikabideek, berriz, zabalak izan behar dute, era guztietako hartzaileak dituzte eta denek konprenitzeko moduko hizkera bilatu beharko lukete. Sarritan, ordea, lanbide jakin batzuetako terminologia berria sartzen digute belarri eta begi-zuloetatik. Eta ez naiz ari zapatari, arotz eta igeltseroen teknizismoez, horiek ez baitira hedabideetan agertzen. Gaurko gizarte honetako guru berriak, berriz, beste hauek ditugu: politiko, abokatu, ekonomista eta antzekoak. Talde hauek, bere kastaren hizkuntza botatzen digute noiznahi eta nonahi, eta gainerakook isilik gelditu beste erremediorik ez dugu izaten, hitz ilun horien atzetik guretzat debekaturik dagoen jakintza sekretu bat balego bezala.

Esajeratzen ari naizela usteko duzue, baina har ezazue ekonomiari buruzko berriren bat eta ea zer ulertzen duzuen: nondik norako orokorra beharbada bai, baina zehatz-mehatz hitz guztiek zer dioten... Nahita erabili dut guru hitza, Iñaki Segurola idazleak baitzioen teknokratik direla gizarte honetako apaiz berriak. Pentsa antzeko zerbait gertatzen zela abadeekin garai batean: latina zen Jainkoarekiko hizkuntza, eta latinik ez zekienak neurritz gainera errespetua zion apaizari; mezak bertako hizkuntzetan ematen direnetik gutxitu egin omen dira debozioa eta errespetua, eta beharbada horrek ere izango du zerikusirik: lehen zeukaten misterio eta magia kutsu hori dena galdu egin dutelako apaizaren hitzek. Agian, teknokraten bost duroko hitzak era ulerterraz batean esango balizkigute galdu egingo genieke gehixeago edo gutxixeago denok diegun begiramen eta beldurra hazienda, aurrezki-kutxa eta gaurko erlijio honetako leihatila edo aitorleku berrien atzean esertzen direnei. Beste horrenbeste gertatzen da medikuen arkanoeekin, noski, baina hauek hedabideetan hainbeste azaltzen ez direnez bakean utziko ditugu.

Kasta-pribilegioei eutsi eta norberaren zereginari auto-propaganda egiteaz gainera, hizkuntza ilun honek baditu beste helburu batzuk ere, hala nola, oso inportantea, eufemismoarena, gauzei bere izenez deitu beharrean moztortzea. Segurtasun indarrek ordena berrezarri dutela esango zaigu poliziak egurra ematen duenean. Langileak kaleratzeaz hitz egin beharrean erreajusteaz hitz egiten da, lantegi ixteak birmoldakuntzak bihurtzen diren bezala. Gainera, hitz tekniko horiek jende guztiak ulertzen dituenen berriak asmatu behar izaten dira eginkizun hori bera bete dezaten; azken aldiari, gaztelaniaz behintzat, *sobredimensión* eta *redimensionar* ari dira izugarri ugaltzen. Izurri hau ez da ordea eskuinaren jabetza, aurrerakoiak ornen diren jarreretatik ere berdin jokatzen

da eta. Adibidez, abortatzeari haurdunaldiaren borondatezko etenaldia esan behar zaio, zaharrei hirugarren adina, Amerikan beltzak afro-amerikarrak dira, itsuei "invidente" esaten zaie, neskameei "empleadas de hogar" eta zerrenda infinitoraino luza daiteke, eufemismoaren kulturari bizi baikara, zapalkuntza eta mesprezioa hitzak berak eta ez pertsonak egingo balu bezala.

Beste batzuetan iluntasun honek ez du inongo helbururik izaten baina modaren eta ezjakintasunaren erruz nahastea eta anbiguotasuna sortzen ditu. Orain dela gutxi "transferentzien traspasoa" negoziatzen ari zirela ikusi edo entzun nuen nonbait, hau da, traspasoen traspasoa esango balute bezala. Benetan eskualdatu behar zirenak eskumenak edo konpetentziak ziren, baina hauetaz hitz egin ordez beraien transferentziak egiten denez, azkenean transferentziak dira transferitu behar direnak. Era honetako zentzugabekeriak inork uste baino ugariagoak dira, oharkabean pasatzen bazaizkigu ere, eta konponbide bakarra dago: ahalik eta xehe, garbi eta argien hitz egin eta idaztea, bost duroko hitzen ustezko distira ahaztuta.

3. Espazio eta denboraren mugak behin eta berriz aipatzen zaizkigu hedabideetan. Berriak ezin omen dira nahi eta behar adina sakondu, denentzako toki eta astirik ez dagoelako. Komunikazioaren ekonomia sakratu hau dela eta, bekatu larria da erredundantzia, adierazitako gauza bat errepikatzea. Eta nik susmoa dut, gero eta gehiago jasan behar dugula erredundantzia hori: albiste bera bost modu ezberdinez kontatzen zaigu, alferrikako adjetiboak pilatzen dira, iritzi bera hamar ahotatik irentsarazten zaigu. Zergatik ote da hau? Hartzailea tontoa delako ala kazetaria lerdo? Ez bat ez bestea. Arrazoiak argitzeko, erredundantzia zein kasutan gertatzen den aztertu behar genuke. Adibidez, bideko istripu baten berri ematen zaigunean, datuak behin bakarrik aipatu eta nahikoa da, irakurleak jaso du. Berdin produktu baten salneurri berriaz ari bazaizkigu edo politikarekin zerikusirik ez duten hilketetan. Kasu horietan kazetaritzako arau zaharrak betetzen dira: norik zer nori non noiz nola zergatik kontatzen zaigu, daturik baldin badago behintzat.

Noiz gertatzen da ba erredundantzia? Hain zuzen ere, informazioaz gain edo informazioa baino gehiago, propaganda egin nahi denean, igorleak hartzailearengan eragina sortu nahi duenean. Orduan gertatzen dira errepikak eta erabiltzen dira hunkimenduzko baliabideak, hartzailea manipulatzeko arrazionaltasunaren azpiko sentimenduetara jotzea baita biderik eraginkorrena. Orduan errepikatzen dira egunez egun berez albiste ez direnak, entzule-ikusle-irakurleak gogoan izan ditzan, bestela ahaztuko zaizkielakoan, bihozbera bai baina ahazkorra baita gizakia. Ez dizuet adibiderik ipiniko, oso lan erraza duzue norberak nahi duen hedabidean horrelakoak topatzea.

Orain artean hizkuntza hitz egin dizuet orohar, zeinahi hizkuntza harturik ere berdin-berdin gertatzen baitira hemen aipatutakoak. Baina gu denok euskaldunak gara, eta euskarak baditu bere bereizgarriak komunikabideetako tresnatzat erabili nahi dugunean. Horietaz arituko naiz orain. Ez naiz hasiko euskararen zapalketaren historia kontatzen eta diglosiaren eragin kaltegarriak deitoratzen. Ez pentsa horiek axola ez zaizkidanik, baina hau ez da horien tokia, eta sarritan lantutako jotzea ezer ez egiteko aitzakia izaten da gainera. Hortaz, daukagun historia tristea daukagu, egokitu zaigun hizkuntza kaxkar honekin aritu behar dugu eta horiek lepoan hartuta aurrera segitzea beste aukerarik ez dugu.

Euskarak komunikabideetan dituen arazoez arituko naiz batik bat, baina baditu abantaila batzuk ere. Esate baterako,

luze eta zabal jorratu dugun topiko okerren eta teknizismo berrien auzian, gure tradizio eskasari esker askoz txepelkeria gutxiago jasan behar ditugu gure inguruko hizkuntzen baino. Jakina, hau bera ez dute denek abantailatzen jotzen, eta burokrazia kontuetan, adibidez, euskara inoiz aritu gabeko alorrean sartu behar izan dugunean, gaztelaniaren aje guztiak kopia arteko onik ez dugu izan, eta horrela sortu dugu administrazioari itzultzaileek beste inork ulertzen eta irakurtzen ez duen euskara mota hori, dena esleipen, zuzkidura, izapide, salo eta ebazpenez beterik.

Komunikabideetako euskararen arazo nagusiak, hau argi utzi nahi nuke, ez dira komunikabideen berezko gaitzak, euskararenak baizik. Hau da: komunikabideetan askotan euskara txarra, txukuntasunik eta indarririk gabea, akatsez beteaz sufritu behar izaten dugu; baina hori ez da kazetarien errua: hori baino euskara eskasagoa eta hutsegitez beteagoa entzuten da Euskal Herriko kaleetan, ikasgeletan eta jolastokietan; eta gaitz erdi euskara baldin bada entzuten dena! Hortaz, hedabideetako euskara kaxkarra ez da gizarte osoko euskara ahularen errainu tristea baizik. Horrek gauzak azaldu egin ditzake, ez ordea justifikatu, ezin baikara lasai gelditu hori esanda. Ez dakitenei euskara ikasteko eskatzen badiegu, dakigunok betebeharrak morala dugu geure euskara jantzi eta aberasteko; zer esanik ez beraz, kazetariak. Bien bitartean, arduradunei dagokie zuzentzaileak jartzea eta denei hobetu beharrendaren kontzientzia piztea.

Komunikabideetako arazo zehatzagoetara etorri, gauza jakina da arlo honetan hizkuntzaren ezegonkortasun handia dagoela, hizkuntzak etengabe hartu behar dituela kontzeptu, adiera eta ideia berriak. Hori hizkuntza guztiei gertatzen zaie, komunikabideen bitartez gauzatzen eta bideratzen baitira beste edozein esparrutako asmaketa eta aurkikuntza berriak, Baina euskaraz askoz gehiago: urteetako eta mendeetako atzerapena daukagunez, presaka eta zalapartaka egokitu behar izaten dira hainbat kontzeptu berri. Beste edozein herri-tan astronomiako hitz berrien bat baldin badago, astronomoek erabili dute aurrea eta kazetariak horiei hartu, behar baldin badute. Gure artean berriz, nola euskaraz lan egiten duen astronomorik ez dagoen, kazetariak asmatu edo moldatu behar zorioneko hitz berri hori. Eta horrelako beste hainbat adibide.

Kontzeptu berriak, eta horientzako hitzak, garai guztietan izan dira. Baina behiala aleka baldin bazetozen, gaur egun uholdeka, eta kazetarien ubideak bideratu behar du uholde hori. Eman dezagun adibide koxkor bat. Halako batean modan jartzen da hitz bat; orain dela hilabete batzuk, "competitividad"; izen hori zatarrak eta alferrikakoa izan daiteke, lehen aipatu ditugun haien antzekoa, baina egun batetik bestera politikoko, enpresario eta sindikalista guztiak hitz hori gora eta behera dabiltzanez, euskal kazetariak zer edo zer jarri behar du. Hiztegiaren begiratu eta batera ez. Orduan batek "konpetitibitate" botako du, beste batek berriz, "lehiakortasun" eta harakoak aldiz, "konkurrentzialtasun". Ni ez naiz nor horietatik zuzenena edo egokiena zein ote den epaitzeko, bakoitzak baditu bere alde on eta txarrak. Baina tamalez, hiru hitz asmatu eta beharbada bakar batek ere ez du arrakastarik izango, hortaz erdaraz esan behar, eta hiztegiaren agertzen denerako moda ahaztuta egongo da eta inork ez du esango delako hitz zatar hori. Beste kasu batzuetan, urteak pasa eta oraindik ez gatoz bat nola izendatu halako kontzeptu bat: nola esan beharko genuke: sekuritate soziala, segurtasun soziala, gizarte segurantzak...? Zalantzak milaka eta milaka dira, presaka erantzun beharrekoak, eta ez dago horiei nork erantzun, hiztegiaren ageri ez direlako eta Euskaltzandiarren egitekoen artean sartzen ez delako. Euskal Irrati Telebistak izan beharko

luke agian horren ardura, baina orain arte erakundeak ez du horren erantzukizun sozialik erakutsi edo ez du bideratzen jakin, lankide batzuen ahalegin txalogarriak gorabehera. Egunkariak bai, eutsi dio erronka horri, baina bere oihartzuna apalegia da agian euskaldungo osoarentzako lidergo argia izateko.

Eman dizkizuedan adibide apur horietan ohartuko zineten, berrikuntza-behar horiek zein hizkuntzaren eskutik datozkigun. Alferrik da erdaren eraginek libratu nahia, baina gure kasuan erdara bakarraren menpean bizi beharra da benetan lazarria. Erdara bakarra baina ez denontzat berdina: frantsesa Bidasoaz haraindikoentzat, espainola gainerakoentzat. Gure hizkuntza aldaketa guztien eragilea espainola izatea ez dut salatuko politikoki gaitzesgarria iruditzen zaidalako, baizik eta hori eragozpena zaigulako kultur hizkuntza nazionala erakitzeko. Bi arazoirengatik gertatzen da hori:

Bata, espainolak dauzkan bereizkuntza eta ñabardura guztientzako baliokideak asmatu nahian ibiltzen garela, sarritan kultur hizkuntza guztien ezaugarri ez baina gaztelaniaren bitxikeria direla ohartu gabe. Adibidez, "autovía" eta "autopista", edo "concurso" eta "oposición" erdara horrexek baizik ez ditu bereizten. Horren ondorioz, leihu bakarrek etxe bihurtzen gara, Espainiako hegohaizera zabalduko leihoa. Gure hizkuntza ez da espainolaren dialekto bihurtuko galiziera bihurtzen ari den bezala, tipologiak ezberdinegia baita, baina gure kultura satelite bilakatzen ari zaigu, planeta bakarraren inguruan jira-biraka, eta gure euskara ulertzeko espainola ere jakin beharko da, Iparraldeko bertsolariei gertatzen zaien bezala. Baina hau bigarren arazoaren parte da.

Bigarren arazoia, Iparralde eta Hegoaldearen arteko zuloaren handitzea da. Ez gara hemen euskalkien ezberdintasunen kontu zaharra berritzen hasiko, baina ukazinezko errealitate gordin hau gogorarazi beharra dago: gaur egun, euskalki-ezberdintasun zaharren gainean denok ulertzeko moduko batu bat eratu dugu hegoaldean, batzuei gehiago eta besteei gutxiago gustatuko zaiena; baina ipar eta hegoaren arteko ezberdintasun horiek egunez egun handitzen ari dira, hain zuzen ere gizarte berriari dagozkion berrikuntzak haiek frantsesaren bitartez eta guk espainolaren bidez hartzen ditugulako. Honen arriskua bi hizkuntza sortzea da eta, egunero bizitzan alde bikoaren arteko harreman fisikoak handiegia ez diren arren, gure herri izatea, duintasuna eta batasun-zentzua lirake kaltetuenak. Konponbideak ez dira errazak, noski, baina ezer egitekotan denon ahalegina beharko da; batez ere gurea, Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoako euskararen egoera oso larria baita, hiltzorikoa ia-ia. Komenigarria litzateke alde bateko eta besteko euskaldunen arteko harremanak estutzea, ez bakarrik erostetarako egin edo uda-pasako etxeak erostez; bi aldeetan ari diren erakunde gehiago egotea (une honetan Euskaltzaindia, AEK, Egunkaria eta alderdi batzuk, sinbolikoki gehiago egiazki baino); eta gaur egun banaketa eta urruntzearen eragile diren komunikabideak, hurbiltze eta bateratzearen faktore izatea. Oso arazo korapilotsua da hau, orain baino lehen ere jorratu izan dudana (Ele, 11/12 zk. (1992), 113-130 or.); izan ere, batasuna eta komunikagarritasuna elkarren kontra baitaude auzi honetan eta konpontzen den hitz bakoitzeko bi berri agertzen baitira. Arazoaren kontzientzia izan dezagun behintzat, Euskal Herria ez dela Bidasoan amaitzen alegia.

Gaztelaniaren erasoaz luzatu naiz, garrantzi handiko gorabehera delako. Baina gurea larriagoa den arren ez da kasu bakarra. Euskañola dela eta ez dela kexatzen gara, baina hor dago spanglish delakoa ere. Hain zuzen ere, informazioaren norabidea ez da arbitrarioa, ekonomi eta politika

mailako hegemoniarekin batera joan ohi da, eta gaur egun mundu osoan nagusi Estatu Batuak baldin badira, informazioen isuria ere ingelesetik beste hizkuntza guztietarakoa dugu. Bai Espainiako bai Frantziako hizkuntza arduradunak egunero kexaka eta protestaka dira, komunikabideetan ingelesak duen eraginaren gehiegizkoaren kontra eta honek beraien hizkuntza sortzen dituen aje eta kutsaduren salaketan. Honen hari-tik, gaurko komunikabideen hizkuntzan eragin kate bat gertatzen ari dela esan genezake, hots: ingelesezko esamolde eta ohiturak espainolezko komunikabideetan zabaltzen dira, eta hauetatik euskarazkoetara datoz gero. Eta nola guk galbaherako aukera gutxiago dugun, euskal senaren kontrako egiturak biderkatu iristen zaizkigu. Lan sakonago bat mereziko luke gai honek, baina nik hemen adibidetxo bat besterik ez dizuet emango: pasiboarena.

Ingelesak egundoko joera du pasibozko esaldiak egiteko eta halakoz betetzen dituzte egunkarietako tituluak. Esate baterako: 'The law has been accepted by the parliament', Espainolez, esaldi hori zuzen-zuzen itzuli ohi dute: 'La ley ha sido aceptada por el parlamento'; eztabaidak izan litezke eta izan dira, hori gaztelania jatorra ote den, ez ote dagoen hobeto 'El parlamento ha aceptado la ley'. Zalantzarik ez dago ordea, 'Legea onartua izan da parlamentuagatik', hori ez dela inola ere euskara. Egia da gaur egun ez dugula '*Polizienatik atxilotua izan da*' bezalako astakeriarik hainbestetan jasan behar, baina bai inpersonal kutsukoak: '*Zazpietan itxiko dira bideak*' edo '*Gure artean zenbait proposamen eztabaidatu dira*'; horien ordez, berezkoago ditu euskarak '*itxiko dituzte*' eta '*eztabaidatu ditugu*'.

Antzekoak gertatzen dira gerundioekin, aditz perifrasiakin eta abarrekin, baina hau ez da hizkuntz akatsak zuzentzeko tokia. Besterik gabe aipaturik utzi nahi dugu kate maila ezberdinetan gertatzen ari den hizkuntz kolonizazioa, kultur kolonizazio orokorragoaren zatia. Era berean, hizkuntzen arteko homogenizazio hau gizarte barruan gertatzen ari den pentsaeren uniformizazio eta inposizioarekin dago loturik. Den-denak dira arautze, estutze, bakantze eta normatibizazio prozesu handi baten atalak. Eta gu, txiki izateaz gain ezberdin garen, bi aldiz zigortzen gaitu joera honek.

Utz dezagun ingelesa alde batera eta itzul gaitzen gure hizkuntz bereizgarrietara. Homogenotasun guztien aurka, hor dago gure heterogenotasun-zantzu bat, pozak adina pena ematen diguna: euskalkiak alegia. Zer egin komunikabideetan hizkera-mota ezberdinekin? Erabateko erantzunik ezean, kasuan kasuko egoera aztertu eta hartu beharko dira erabakiak, ezaugarri hauen arabera.

a) Hedadura: komunikabide nazionala den ala eskualdekoa. Nazionala bada, dudarik gabe denentzako euskara hautatu behar. Eskualdekoa bada, bailara horretako hizkeraren prestigioa eta batuarekiko tartea zenbaterainokoak diren ikusi behar: batutik hurbil baldin badaude, hala nola gipuzkera edo goi nafarrera, euskara batuaz egitea onena. Urrunxeago baldin badaude, aztertu egin behar: Deba arrear, bizkaieraz hitz egin arren, komunikabideetarako euskara batua aukeratu dute

zalantzarik gabe. Bermeon, ordea, bestela jokatu beharko litzateke, seguruenen.

b) Komunikabidea ahozkoa edo idatzizkoa den. Hedaduraren osagarri da hau. Bistakoa denez, idatziz ari garenean baturako joera nabarmenagoa da, eta ahoz toki gehiago behar du euskalkiak; ez horrenbeste ahozko batua arautu gabe dagoelako —funtsean idatzia bera gehi ahoskatze-lege batzuk izango litzateke hau—, baizik eta hiztunak bere euskararekin konfiantza izan behar duelako, lotsarik ez, eta sinesgarritasuna jarioak eta naturaltasunak ematen dutelako, arauak baino gehiago.

c) Erregistro jasoa edo apala. Jasorako, bistakoa denez, batua erabiltzea hobesten da. Apalerako ere komeniko litzateke hizkera batu bat izatea, baina gaur egun hori garatu gabe dagoenez, eta dagoen apurra gipuzkeraren hedatzea izan denez, toki gehiago utzi behar euskalkiei, beti ere aurreko irizpideei lotuta: eskualdeko komunikabidea izan eta ahozkoa batik bat.

Denbora aurrera doa eta amaiera aldera abia gaitzen, Komunikabideez eta hizkuntza aritu gara, teorian, norentzako ahaztuta. Helburutzat eskola dugula ahaztuta. Orain arte esandakoak interesgarriak izan daitezke, agian, eskolan bertan komunikabideak aztertzeko, lehen aipatu dugun jarrera kritikoa suspertzeko. Baina ez da hori egin dezakeen garrantzizkoena. Komunikabideen munduan, kontsumora mugatu beharrean, nahiz eta kontsumo kritikoa izan, sujetu eta egile bihurtu daitezke eskola, eta hori litzateke irakaspenik ederrena. Garai batean ez zen horrelakorik, baina gaur, zorionez, ez dira falta eskolako irriak eta aldizkariak. Esperientzia ezin ederragoak dira hauek, alde on asko dituztenak:

- Hizkuntza ez da ikasgai aspergarria baizik eta jolas eta lan-tresna.
- Eskola bere ingurunean eta herrian hobeto txertatzen da, bertako arazoak jasoz eta harremanetan sartuz.
- Ikasleak ekintzaile izaten ikasten du, gauza baliagarriak egiten; honen ildotik, aktibotasuna da eskolako pizgarriarik motibagarriena.
- Azkenik, lehen luze eta zabal aipatu dut hedabideen oligopolioa, nola oso esku gutxi kontrolatzen duten informazioaren mundua eta horrek kolokan jartzen duela askatasunaren funtsa. Horrelako salaketek ez dute ia ezertarako balio, norbaiten kontzientzia iratzartzeko ez bada. Baliagarriena eta eraginkorrena ordea, zera da: herrietan, eskoletan eta auzoetan sortzea komunikabide berriak, informazioa sortzen den lekutik bertatik emango dutenak, hartzailea eta igorlea hurbilduko dituztenak.

Horregatik da garrantzitsua eskoletan komunikabideak sortzea, ez betegarri huts moduan baizik eta benetako zerbitzu gisa. Horrek lagunduko du hizkuntza eta komunikabideetako berrakortzeak behingoz garbi eta gardenak izan daitezken, totalitarismoak kristalak benda bihurtu nahi dizkigun sasoi ilun honetan.